

Jakes Bortairu

BATERA PLATAFORMAKO KIDEA

Lurralde antolaketa

Herrien arteko kooperazioari buruzko eztabaida pil-pilean dugu Iparraldean. Frantziako Legebiltzarra iaz bozkatu zuen lurralde elkargoen erreformaren atalean,

herrien arteko egiturak ditugu mahai gainean. Urtea bukatu gabe, tokiko hautetsiak kontsultatu ondoren, Estatuko ordezkari den prefetak herrien arteko kooperazio eskema berria finkatu beharko du, gobernuak argi utzi duen bide orria segituz: egituren kopurua azkarki murriztu eta, kosta ahala kosta, azken 30 urteetan osatu diren mankomunitateak berrantolatu eta batu. Frantziako Estatuan tarrapatuta egiten ari den prozesu honek eztabaida eta kexak piztu ditu. Egia erran, tokiko hautsi-mautsi politiko franko hankaz gora ezarri ditu, nahiz eta bestalde funtsezko arazoak pausatzen dituen, hala nola, non eta nork hartzen dituen erabaki politikoak.

Kontzertazioaren lehen txanda amaiturik, zera aurreikusten du eskema berriak: Zuberoa den bezala geldituko litzateke (Biarnoko herri bat barne eta Eskiula kanpo geldituz). Nafarroa Beherea elkargo bakar batean edo bitan antolatu litzateke. Aldiz Lapurdin gertatuko litzateke aldaketa handiena, BABko hiriguneak (Baiona, Angelu, Biarritz) inguruko herri asko bereganatuz, Landes-etako batzuk barne. Azpimarratzeko



DANI BLANCO

da irentsiak liriatekeen herri horiek ezetz borobila erran berri diotela proiektuari. Kezka nagusia hauxe dute: elkargo berriak lurralde osoko ikuspegitik ariko ote dira, ala herri nagusiek inguruko herri tipiak beren menpe ezarriko ote dituzte? Kezkatzeko bada dudarik gabe, Ipar Euskal Herriko ezagupen instituzionalaren etsai amorratuenak BABko elkargoan baitira hain zuzen.

Izan ere, eztabaida Ipar Euskal Herriko testuinguru berezian pausatzen da. Iparralde mailako egitura juridiko-politiko ezean, herri elkargoen batzeko irizpideak, bakoitzaren hedadura eta esku-menei buruzko eztabaidak makurtuak dira. Hots, nola burutu lurralde barneko antolaketa txukuna, lurralde osoa ezagutu eta antolatu gabe? Azken hamabost urte hauetan Garapen Kontseiluko lanek behin eta berriz argi utzi dute herritarren eguneroko bizitzan inportanteak diren hainbat arazo kudeatzeko maila egokia lurralde osoa dela.

Herri elkargoak gauza askotarako txiki edo sakabana-tuegiak gelditzen dira. Bestalde, proposatuak diren elkargo berriak gehienetan ikuspegi teknokrata batetik eginak dira, estatistikak kontuan hartuz eta inondik ere ez herritarren bizipen eta borondatea. Panorama ikusirik, argi da Iparraldeko berezko instituzio baten aldeko borroka azkartu beharra dela. ■

«
Panorama ikusirik, argi da
Iparraldeko berezko instituzio
baten aldeko borroka
azkartu beharra dela
»

TXANDAN

Edu Zelaieta



Sofoklesen *Antigona* ikusi genuen atzo,

Meridako teatro erromatarrean: Ediporen eta Jokastaren arteko intzestuak emandako Antigona gazteak patu ezin lazarriagori aurre egin beharko dio. Emaitza, ondorioa, greziar tragedietan ohi bezala, eszenatokia zerraldoz betetzea, ordu eta erdiren buruan.

Fribolitatea izango da edo neure selebrekeria –zuek lasai juzka– hainbeste ezbehar ikusita norberaren arazoak nimitxoak direla pentsatzea, sentitzea. Enpatia-ariketa bat eginez, horrelaxe irudika-

Tragediaren baltsamoa

tu ditut aspaldiko greziarrak: euren eguneroko bizimoduari aise eramangarriagoa iritziko

zioten hainbatek, teatroan ikusitakoaren aldean. Ergelen kontsolamendua, nahi baduzue, baina kontsolamendua, finean.

Analogia eginez, auzo-tragedia jorratzen duten telebistako irudiak batzuetan modu berean geureganatzen ditugula iruditzen zait, albistegiak barne. Agian, diferentzia nagusi bat nabarmenduko nuke: guk, egungo kontsumismo azkarraren antzera, etengabe betetzen ditugu pantailak zerraldo berri-zaharrez, teatroaren alferreko trama aurreztuz. ■